

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

**107/2020 Foru Agindua, ekainaren 1ekoa, baldintzekin behin betiko onesten duena AMVISAK Langraiz Okan duen Ur Hornidurako Azpiegitura Berriaren Plan Bereziaren espedientea**

#### I. AURREKARIAK

Lehenengoa.- Alkatetzaren azaroaren 17ko 484/2015 Ebazpenaren bidez, hasiera batean onetsi zen AMVISAK Langraiz Okan duen Ur Hornidurako Azpiegitura Berriaren Plan Berezia, eta jendaurrean jarri zen berrogeita bost egun balioduneko epean, dagozkion iragarkiak ALHAOn (138. zk.) eta El Correo egunkarian (2015eko azaroaren 25ekoa) argitaratuz. Gainera, udalerriko administrazio batzarrei jakinarazi zitzairen.

Bigarrena.- Lurzoruaren eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 90.5 artikuluan ezarritakoaren arabera, udalak hasierako onespena jakinarazi zien sektorean eskumenak dituzten administrazio publiko hauei, horren berri izan zezaten eta txostena egin zezaten: URA Uraren Euskal Agentzia, Abiazio Zibileko Zuzendaritza Nagusia, Trenbide Azpiegituren Administrazioa (ADIF) eta Arabako Foru Aldundiko Errepide Zerbitzua.

Aldeko txostena eman dute URA-Uraren Euskal Agentziak, Ebroko Konfederazio Hidrografikoak, Abiazio Zibileko Zuzendaritza Nagusiak eta ADIFek. Abiazio Zibileko Zuzendaritza Nagusiak aldeko txostena egiteko baldintza hauek jarri ditu: dokumentazio grafikoan Gasteizko aireportuko zortasun aeronautikoen planoak sartzea, eta araudian zortasun aeronautikoen arloko zenbait arau preskripzio jasotzea. ADIFen txostenak proposatzen du dokumentu teknikoaren 1. eranskinean sartzea bere jabetzako lursail gisa eta plan berezi honek eragindako lursail gisa bide publikoari dagozkion 949 m<sup>2</sup> eta lurzatiari dagozkion 38 m<sup>2</sup> (1-3076 lurzatia).

Hirugarrena.- Ingurumen eta Hirigintzako Saileko foru diputatuaren otsailaren 28ko 44/2017 Foru Aginduaren bidez, Iruña Okako Udalak eskatutako eskuordetza onetsi zen, Langraiz Okako Ur Hornidurako Azpiegitura Berriaren Plan Bereziaren espedientean dagozkion ebazpena emateko. AMVISAK sustatu zuen espedientea eta Iruña Okako Udalak izapidetu.

Laugarrena.- Jendaurrean egon zen bitartean ez zen alegaziorik aurkeztu. Beraz, udalbatzak 2019ko apirilaren 10eko bilkuran behin-behineko onespena eman zion espedienteari. Eta behin-behineko onespeneren berri eman zien udalerriko administrazio batzarrei.

Bosgarrena.- Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeak, Arabako Hirigintza Planeamenduko Atalak urriaren 4an egindako 6/2019 bilkuran, erabaki zuen aldeko irizpena ematea lurralde antolaketari dagokionez, eta URA-Uraren Euskal Agentziak eta Ebroko Konfederazio Hidrografikoak egindako aldeko bi txosten berri atxiki zitzaizkion espedienteari.

Seigarrena.- Ohiko Ingurumen Ebaluazio Estrategikoaren prozedura izapidetu da Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuan, eta 2017ko urtarrilaren 16an amaitu da, Ingurumen Memoria igitzean.

2019ko azaroaren 5ean, Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak txosten bat egin zuen, non adierazten baitzen Ingurumen Memorian nabarmentzen ziren alderdiak behar bezala jaso zirela hirigintza dokumentuan, behin betiko onetsi zitezela.

Zazpigarrena.- Iruña Okako Udalak Aldundiko erregistroan urriaren 23ko sarrera data duen espedientea bidali zuen behin betiko onetsia izan zedin.

Zortzigarrena.- Igorritako espedientea aztertuta, ikusi zen trenbideen arloko txosten sektoriala falta zela, eta hori udalari jakinarazi zitzaion, aldundiko erregistroan 2019ko urriaren 30eko irteera data duen idazki baten bidez. Espedientea behin betiko onesteko bi hilabeteko epea zenbatzen hasteko, aipatutako txostena bidali behar zen.

Bederatzigarrena.- 2020ko otsailaren 18an erregistratutako idazkiaren bidez, udalak Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendaren Ministerioko Azpiegituren Idazkaritza Nagusiak egindako aldeko txosten sektoriala erantsi zuen.

## II. OINARRIAK

Lehenengoa.- Plan berezi hau AMVISA udal sozietateak sustatu du, hornidura azpiegituraren jabe den aldetik.

Espediente honen dokumentu teknikoaren memorian xedatutakoaren arabera, xedea da Iruña Okako udalerrian dagoen Langraiz Okako herrigunean AMVISAk duen Ur Hornidurako Azpiegituraren Sistema Orokorren hirigintza erregulazio xehatua egitea, lehorre garaian eta larrialdi egoeretan Vitoria-Gasteiz inguruko ur hornidura bermatzeko.

Bigarrena.- Plan berezi hau indarrean dauden Udal Plangintzako Arau Subsidiarioek ezartzen dute, 180.2 eta 184.5 artikuluen bidez. Artikulu horietan plangintza figura hori idaztea eskatzen da, sortu berri diren sistema orokorrak garatzen diren kasuetan, bai eta antolamendu xehatua, zonifikazioa, zortasunen ezarpena, eragin azalera eta abar definitzeko ere.

Hirugarrena.- Ezarri beharreko ur horniduraren azpiegitura 3.685 metro inguruko hodi bat da, hiru tartetan banatua, eta azpiegitura osatzen duten beste elementu osagarri puntual batzuk, behar bezala funtziona dezaten. Tarte horiek lurzoru urbanizaezinaren kategoria desberdinei eragiten diete trazaduraren zatirik handienean. Gainera, dokumentu teknikoaren memorian adierazten denez, eragin arkeologikoa duten hauek ageri dira: lehen tartean, 2507 zenbakia duen Santa Marina aztarnategi arkeologikoa, 1987ko Arabako Gutun Arkeologikoan sartuta dagoena; Billodako Kokalekua 4. Usteko Arkeologia Eremua, lehen tarteari eta hirugarrenari eragiten diona; eta, bigarren tartean, Langraiz Okako 3300 zenbakia duen aztarnategi arkeologikoa, 1987ko Arabako Gutun Arkeologikoan sartuta dagoena.

Hona hemen hornidura azpiegituraren proposamenaren deskribapen xehatua:

- 1. tarte: Langraiz etorbideetik hegoaldera, Langraizera sartzeko mendebaldeko biribilguneetik gertu dagoen hodiarekin konektatzen da. Harrobi zaharrera sartzeko bidearen gainetik doa, Langraizko erdigunea iparraldetik inguratuz, gaur egun dagoen hodiarekin berriro konektatu arte, kasu honetan, 900 mm-ko altzairuzko hodia, gainazaletik Badaia mendilerrotz doana. 1.583 metro inguruko luzera du.

- 2. tarte: Torca errearen ondoan dagoen zundaketatik abiatzen da, trenbide geltokiaren ondoan, herrigunearen hegoaldean. Trenbideak zeharkatzen ditu ponpaketa estaziora doan bidetik, eta trenbidearen hegoaldeko bidearekin paraleloan garatzen da. Berriro zeharkatzen du trenbidea udalaren kirol instalazioen parean, eta hortik iparralderantz doa eta herrigunearen ipar-ekialdean dagoen zundaketan amaitzen da, Menesiarren ikastetxearen alboan eta 3. zatiaren hasierako puntuaren ondoan. Tarte honek 1.487 metro inguruko luzera du.

- 3. tarte: herriaren ipar-ekialdean dagoen zundaketatik abiatzen da, Menesiarren ikastetxearen alboan eta 2. tarte amaitzen den puntuan. Iparralderantz garatzen da, gainazaletik Badaia mendilerrotz doan 900 mm-ko altzairuzko hodiraino, eta 1. tarte hodiaren azken puntuarekin bat datorrena. 615 metro inguruko luzera du.

Laugarrena.- Hornidura azpiegitura behar bezala obran jartzeko, plan bereziak proposatzen duen antolamenduan zehazten dira obra gauzatzeko behar diren bide zortasunak eta aldi baterako okupazio eremuak, eta azpiegituraren elementu puntualen kokapena.

Bosgarrena.- Azpiegitura igarotzen den zonetan baimendutako erabileretara egokitzearen aldeko ebazpena eman zen Plangintzako Arau Subsidiarioen aldaketa puntualean. Aldaketa horretan AMVISAREN jabetzako Ur Hornidurako Azpiegituraren Sistema Orokorra sartu zen egiturazko plangintzan (uztailaren 20ko 227/2017 Foru Aginduaren bidez behin betiko onetsi zen, eta indarrean sartu zen haren araudia 2018ko maiatzaren 9ko 53 zenbakiko ALHAOn argitaratzean).

Seigarrena.- Espedientea aztertuta, uste da proposamenak konponbidea ematen diela ur hornidurako oinarriko azpiegituraren arloko udal beharrei eta udalaz gaindiko beharrei, eta, beraz, ezin dela eragozpenik jarri onespenerako.

Dena den, Iruña Okako udalerriko hirigintza plangintzaren eta hirigintzako legeria aplikagariaren arabera agiria azterturik, zuzendu beharreko zenbait kontu antzeman dira, ondoko atal hauetan zehazten direnak, hain zuzen:

1. Generoaren araberrako eraginari buruzko txostenetik salbuesteko justifikazioa dokumentu teknikoari erantsiko zaio.

2. Hirigintzako araudiari dagokionez:

- Hirigintzako araudiaren 7. eta 8. artikulua bat etorriko dira Plangintzako Erregelamendua onesten duen ekainaren 23ko 2159/1978 Errege Dekretuaren 68. artikuluekin.

- 5. artikulua aldatuko da, sistema orokorra ez baita gaineratutako baldintza bat.

- Lurzoru urbanizaezinenaren kategoriei buruzko baldintzak 10. eta 11. artikuluetatik kenduko dira, eta 15. artikuluan obrak gauzatzeari lotutako neurri gisa sartuko dira.

- 12. artikuluan azpiegitura osatzen duten elementu puntualak dituzten eraikinen baldintza estetikoak arautuko dira.

- Hirigintza araudiaren 13. artikulua 45.5 artikuluan aurreikusitako dirulaguntzen araubidea aipatzen du, artikulua hori zer lege testutan jasotzen den adierazi gabe.

3. Plan berezi honetako hirigintza araudiaren 12. artikuluan aipatutako eraikinen azalera planoan jarriko dira, azpiegitura honi buruzko Arau Subsidiarioen aldaketaren plano batean egin den bezala.

4. Bideragarritasun ekonomiko-finantzarioaren azterketan desjabetze bidez lurzoria lortzearen ondoriozko kostuak sartuko dira, eta bide zorren eta aldi baterako okupazioen kalteordainak ere bai.

5. Dokumentuaren formaren alderdiei dagokionez:

- Memoria zuzendu egin beharko da, 4. apartatuan adierazitako 2. eta 3. tarteetan luzerak bat etortzeko 5.1 eta 8.2 paragrafoetan adierazitakoekin.

- Plan berezia osatzen duten dokumentuen izena zuzentzea. Aurkibidean, bakoitzari dagokion atalean eta 4. artikuluan (goiburuak, etab.) bat etorri beharko dute.

6. Konpondu beharreko alderdi horiek euskarri informatikoan jasoko dira, eta berriro aurkeztu beharko da agiri teknikoaren edukia, nola fitxategi editagarrietan hala editaezinetan.

Horregatik, eta dagozkidan ahalmenak erabiliz, hau

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Behin betiko onestea AMVISAK Iruña Okako udalerriko Langraiz Okan duen Ur Hornidurako Azpiegitura Berriaren Plan Bereziaren espedientea, betiere foru agindu honen seigarren oinarrian adierazitako alderdiak betetzen badira.

Bigarrena. Aipatutako baldintzak ez dira funtsezkoak. Beraz, haiek zuzendutakoan, berriro jendaurrean jarri gabe, espedientea Arabako Foru Aldundiari igorriko zaio, betearazi beharrekoa dela adieraz dezan, izapideak egin daitezzen eta argitara dadin.

Hirugarrena. Ebazpen hau ALHAOn argitaratuko da.

Laugarrena. Administrazio bidea agortzen duen ebazpen honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salan. Horretarako, bi hilabete izango dira, ebazpena jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Gasteiz, 2020ko ekainaren 1a

*Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua*  
*JOSEAN GALERA CARRILLO*